

Astelehena, 2005ko abenduak 5, 00:15:00an berritua

Telebista modu kritikoan

Hemerotekan

Bilatu

Azken ordukoak

Berriak

Harlan
Iritzia
Euskal Herria
Ekonomia
Mundua
Gaiak
Kirola
Kultura
Azkena

Agenda

Agenda
Eguraldia
Zozketak
Horoskopoa
Telebista
Farmaziak

Telefonoak

Bereziak

Webguneak
Gure gaiak
Pareak bai
Elkarriketak

English Edition

Bisitak

Hemeroteka

Zerbitzuak

Harpidetza
Publizitatea
Mezuak

Harian



Telebista modu kritikoan ikusteko gida sortu dute

Kataluniako Ikus-entzunezko Kontseilua 'Com veure la TV' material didaktikoa banatzen ari da ikasturte honetan, doan

URTZI URKIZU - DONOSTIA

Kataluniako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako gidaliburua argitaratu du Kataluniako Ikus-entzunezko Kontseiluak (Com veure la TV), telebista modu kritikoan ikusten ikas dezaten. Lan dinamiko eta gaurkotua da, duela urte batzuk egindako lan baten egokitzapena hain zuzen, eta katalanez egina dago. Com veure la TV gidaliburu berrian ikus-entzunezko materiala prestatu dute, DVDen bitartez irudiak aztertzeko. Materiala eskola eta institutu guztietan ari dira banatzen 2005/2006 ikasturtean.

1998. urtean argitaratu zuten lehen gidaliburua. Josep Maria Carbonell Ikus-entzunezko Kontseiluko presidentearen arabera, «oso tresna ona» izan zen hura eta «feed-back ona» sortu zuen. Kontseilu bereko kide Nuria Llorachek dio garrantzitsua dela 1998ko lana aldaketekin berrargitaratzea: «Telebista izaten ari den bilakaera kontuan hartuta, gidaliburuak orrazketak behar zituen eta eduki berrien azterketa gaineratzea».

Kataluniako Ikus-entzunezko Kontseiluak Espainiako Hezkuntza eta Zientzia ministroari jakinarazi dizkio gidaliburuaren nondik norakoak, eta gaztelaniara itzultzeko interesik baduen galdetu dio. Com veure la TV lau liburu eta DVDtan banatuta dago, guztiak adibide praktikoz osatuak eta irakasleentzako gida erraz eta erabilgarri batekin.

DVD-LIBURUAK

Izenburua: 'Com veure la TV?'

Hizkuntza: Katalana.

Gaia: Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako ariketak, telebistako irudiak aztertzen ikas dezaten.

GIDAKO ARIKETA PRAKTIKOAK LAU DVD-LIBURUTAN

1. FIKZIOZKO KONTAKIZUNAK

Narrazioen ezaugarriak eta testuingurua

Forma narratiboetan irudiak nola sortzen diren aztertzen du. Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat prestatutako ariketa batean, adibidez, John Boorman zuzendariaren Excalibur (1981) filmaren

EROSKETAK



GATILLAZO GATILLAZO

13,45 €

Lehen La Polla Records taldean eta orain Gatillazo taldean aurkituko dugu Evaristo bere proiektu berria gidatzen

SAIL HONETAN

- Babes legea, paper hutsa
- «Telebistaren bidez pentsatzeko plazera erakutsi nahi dugu»
- Denbora gehiago telebista ikusten eskolan baino
- «Euskaldunak atzeratuta gaude komunikazioaren heziketan»
- «Telebistan botererako bokazioa da nagusi, ez balloak igortzekoa»
- 'Begiradaren heziketa' DVD-liburua egin du 'Hik Hasi'-k

eszena bat ikusi behar da lehendabizi. Artur erregea eta Merlin basoan azaltzen dira eszena horretan. Bost galdera egiten zaizkie neska-mutikoei ondoren: «Nor dira Artur eta Merlin? Ezagutzen al duzu istorioa? Pertsonaia historikoak ala mitoak dira? Horrelako istorioek egun interesik dutela pentsatzen duzu? Antzeko istorioen bat azaltzen duen beste filmen bat ikusi al duzu?». Gidan, bestalde, istorioa oinarrituta dagoen Thomas Maloryren eleberriri buruzko informazioa dago eta zaldunen eleberrien epika aztertzen da. Ondotik, gertakizunekin lotutako beste bost galdera egiten zaizkie ikasleei. Zinemak eta telebistak mitoak eta kondairak zabaltzeko orduan duten funtzio komunikatiboa aztertzea nahi dute ariketa honekin, besteak beste. Arturren mitoaren gaurkotasuna aztertzea da beste helburu bat. Ikus-entzunezko narrazioaren ezaugarriak eta narrazioa balio igorle gisa gaitzat hartuta, beste hamaka ariketa daude.

2. ALBISTEGIAK

Informazioaren hautaketa eta manipulazioa

Ariketak zazpi gaitan banatuta daude: irizpide informatiboak, irudiaren garrantzia informazioaren hautaketan, mezuaren hautaketa, albistegien egitura baldintzak, albisteen formak eta telebistaren errealitate soziala. Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako ariketak dira guztiak, eta hedabideetako informazioarekin lotutako alorrak jorratzen dituzte. Hautatzea manipulatzeko metodo nagusi gisa izenekoan ikasleei honako bi galdera hauek egiten dizkiete: «Zer da, zure ustez, manipulazio informatiboa? Noiz dago albistea manipulata?». Margaret Thatcherri buruz egindako ikus-entzunezko hiru lan ikusi behar dituzte ikasleek DVDan: lehenengoak hipotetikoki mezu neutroa du, bigarren Thacherren kontrakoa da eta hirugarrena haren aldekoa. Ondorioa da hiru ikuspegiak partzialak direla eta kazetariak protagonistaren gaineko informazioa hautatzen eta manipulatu duela.

3. PUBLIZITATEA

Iragarkietako balioak atzemateko helburua

Iragarkiekin lotutako hamar gai jorratu dituzte liburuan. Publizitatearen balioak dira gaietako bat: Lehen Hezkuntza-ko ikasleentzako ariketa batean, helburua publizitateak, produktuak saltzeaz gain, balioak ere saltzen dituela deskubritzea da. Bide batez, balio horiek zeintzuk diren atzematen laguntzen du ariketak. Auto baten iragarkia DVDan ikusi ondoren, ikasleei leloen eta balioen gaineko zenbait galdera egiten dizkie-te.

4. BESTELAKO FORMATUAK

'Reality'-ak modu kritikoan ikusteko galderak

Talk-show-ak, prentsa arrosako saioak, zapping saioak, kirolak, lehiaketak, reality-ak eta bideoklipak aztertzen dira. Operación Triunfo saioaren gaineko ariketa bat bada Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, programa hainbat ikuspegitatik aztertzeko; lehiaketa, musika programa eta reality-show gisa begiratu, telebista generoen gainean hausnartu behar du ikasleak. Gran Hermano-ri buruzko ariketan, berriz, hainbat galdera egiten zaizkio ikasleari, programa modu kritikoan ikus dezan. Esate baterako, lehiakideen jokaera eta hizkera aztertu behar dituzte ikasleak.

Inprimatu



E-postaz bidali



Gomendatu



© BERRIA-Edizio Digitala

berria@berria.info - www.berria.info

Euskal Editorea S.L. , Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel 943 304 030 Fax 943 590 172